

Ibilbide aberatsa

Jone Larrañaga

Euskaldunon Egunkaria, 1997-11-01: 12-13.

1921eko San Martin egunean sortu zen Martin Ugalde familia euskaldun eta euskaltzale batean. Aita, EAJko zinegotzia, euskara eta euskal kulturaren alde sutsu aritu zen lanean, aroztegiak uzten zion denbora librean.

Martinek aitak zituen afizio berei jarraitu zien umetatik. Dantzari txikietan jarduten zuen aita irakasle zuela, eta hura bezala, korrikan aritzen zen hango eta hemengo lasterketetan. Horietaz gain, eskola eta lagunekin futboleko aritza zituen okupazio nagusiak. Hura zen Martinen mundu txikia.

Baina Euskal Herriko gainontzeko zokoetan bezala, Andoainen ere hautsi egin zen lasaitasun hura gerra zibila lehertzearekin bat. Martin Ugaldek hamabost urte besterik ez zituen, gutxiegi gertatzen ari zena ulertzeko. Eskolarik ez eta, gerra atseginez hartu zuten hasieran, baina aitak ihes egin beharra zegoela esan orduko jabetu ziren egoeraren larritasunaz.

Gernikako bonbardaketak Bilbon harrapatu zituen Ugaldetarrak. Joseba, Martinen anaia gaztea, Errusiara bidali zuten, baina artean bera atzerriratzeko koxkortuegia zela eta, gurasoekin jarraitu behar izan erbesterako bidea.

Gurasoek Bartzelonan bilatu zuten aterpea, Martinek, berriz, Frantziako Chateau Chinon-en (Nièvre). Urtebete egin zuen hango familia batean, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren gestioei esker Donibane-Garazira etortzen lortu zuen arte. Han topatu zuen Martinek benetako eskola eratua. Irakasle sonatuak izan zituen, Joxe Miel Barandiaran, John Zabalo eta Felix Dorronsoro, esaterako.

Ordurako Martin irakurle porrokatua zen. Txikitatik zuen literaturarekiko zaletasuna, bai irakurtzekoa bai idaztekoa. Gerra aurretik abenturazko kontakizunak irakurtzen hasi zen eta erbestean klasiko ia denak irakurri zituen. Victor Hugoren *Les Misérables*ek txundituta utzi zuen.

Kontzentrazio gunetik pasatuta, atzera berriz Andoainera

Bartzelona nazionalen esku gelditu zenean Martinen amak Andoainera itzultzea beste erremediorik ez zuen izan. Aitak, berriz, Venezuelarako bidea hartu zuen.

Aitak hala eskatuta Martin harengana biltzeko paperak egiten hasi zen 1940 urteko udaberrian. Hartan ari zela, alemaniarrek okupatu egin zuten Frantzia. Naziek frankismotik ihes egin zutenak atxilotu eta Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zituzten, haien artean Martin. Pare bat hilabete egin zituen bertan baldintza penagarritan, harik eta Iñaki Azpiazu apaizari eskerrak handik irtetea lortu zuen arte. San Juan egunez,

ordea, berriz atxilotu zuten naziek; bidali egin zuten Frantziatik eta amarengana itzuli zen.

Jaioterrira itzultzea gogorra egin zitzaion. Familiaren jarduera politikoagatik bizkar ematen zioten lehengo lagun askok, gerra aurretik zituzten ondasun guztiak galdu zituzten eta ezin lanik aurkitu. Batean eta bestean ate joka ibili ondoren Manuel Labordek eman zion linterneru lana, leihoetan kristalak jartzen aritzeko.

Bi urte geroago soldadutzarako deia jaso zuen Espainiako armadari Tetuanen zerbitza ziezaion. Ihesbide moduan edo, betiko afizioari eutsi zion han ere, idazteari. Lagunei karta piloa bidali zizkien. Eskutitz haiek gustatu egin zitzaizkion nonbait Manuel Laborderi, eta bueltakoan lantegiko posta arduradun izendatu zuen. Han aritu zen lanean –orain EGUNKARIA dagoen egoitza berean– 1947 urtean familia Venezuelan elkartu zen arte. Martinez zazpi urte egin zituen aita ikusi gabe.

Askatasun haizea

Venezuelara iritsi orduko jabetu zen Martin Ugalde askatasuna zer zen. Ordura arte horrek adierazi nahi zuenaren kontzientziarik ez zuen izan, umetan lapurtu baitzioten erroitik. Inork ezer debekatu gabe, inoren beldurrik izan gabe idazteko aukera izatea zeinen handia den deskubritu zuen.

Euzko Gaztedi izeneko agerkaria sortu zuen iritsi eta denbora gutxira, Caracasko Euskal Etxeko gazteriaren laguntzaz. Lehen aldiz euskaraz idatzi ahal zituen barrutik ateratzen zitzaizkionak. *Erritar* ezizenez sinatzen zituen artikuluak, eta euskara eta Euskal Herriari buruzko konpromezua erakusten zuten gehien-gehienek. Aldizkari hartan argitaratu zituen ipuin zenbait, haien artean Gizerailtza izenekoa, gero *Iltzalleak* liburuan bildu zuena –Venezuelan euskaraz argitaratutako lehen liburua izan zen hura–.

Euzko Gaztediko lan hark sosik batere ematen ez ziola eta, burdindegiko gaiak saltzen eta General Motorsek Caracaseko portura ekartzen zituen autoak zerrendatzen aritu zen, kazetaritzan modu profesionalean aritzeko aukera iritsi zitzaion arte. *Elite* izeneko aldizkarian topatu zuen erredaktore lana. Lanean hilabete gutxi zermatzala, estatu kolpe baten bitartez Venezuelan agintean zegoen triunbiratoko agintari bat hil zuten. Berri hari *Eliten* emandako segidak ezagun egin zuen Martin Venezuela osoan. Eguneroko lanaz gain, Euskal Etxeko eta alderdiko ardurak bete behar zituen –EAJko ordezkari izan zen herrialde hartan–. Idazle venezuelarren eta gainontzeko latinoamerikarren liburuak bata bestearen atzetik irensten zituen eta ipunak etenik gabe idazten. Haietako batengatik, *Un real de sueño sobre un andamio* izenekoagatik, *El Nacional* egunkariaren (Venezuelako ospetsuena) literatur saria jaso zuen.

Saria jaso zuenean Anamari Urrezieta santurtziarrarekin ezkondu berria zen Martin, eta beste lanpostu hobe batean zegoen beharrean. *Creole Petroleum Corporation* enpresa handiaren argitalpenen ardura eman zioten, besteak beste *El Farol* kultur aldizkari ospetsuarena.

Handik gutxira, *Creole*-k emandako beka bati esker, Estatu Batuetan egin zituen kazetaritza ikasketak, Chicagoko Northwestern unibertsitatean. Iritzi publikoan espezializatu zen.

EEBBetatik bueltan, *Creolerekin* Venezuelan barrena egin zituen bidaiak aprobetxatuta, herrialde hartako errealtate arras ezberdinei buruzko erreportaiak egin zituen, eta *El Nacional* egunkariak argitaratu zizkion. Hala bada, Venezuela deskubrituarazi zien venezuelarrei, haien beraien berezko hizkuntzan zuzentzeko ahalegin berezia eginez gainera.

Aberriaren deia

Ordurako kazetari ezagun-ezaguna zen Martin Venezuelan. Lanbide ona zuen, eta bizitza eroso. Hala eta guztiz ere, umeak koxkortzen ari zirela ikusita, guztia utzi eta Euskal Herrira itzultzeko pentsamendutan hasi ziren. Hiru seme-alabek euskaraz ikasteko bitartekoak izan zituzten, propio euskarazko ipuinak eta antzerkiak idatzi zituen martinek. Baina hori ez zen nahikoa: euskaldun hazi nahi zituen haurrak, haienak ere euskaldun izan zitezten etorkizunean. Anamarik Martinekin ikasia zuen euskara aurrez.

Euskal Herriratu nahi, baina oztopo ugari: Euskal Etxeko lehendakari izana zen Venezuelan; artean agintean ziren indar frankistentzat, etsaia. Hala lehenengo emaztea eta haurrak bidali zituen Euskal Herrira. Bi urte luze egin zituzten berriz ere guztiak elkartu aurretik. Hondarribian hartu zuten bizilekua.

Gogoz hartu zuen parte 60ko hamarkadaren amaieran euskara batuaren inguruko eztabaida bizian; euskara batuaren alde, 'h' letraren defentsan. Euskara batuaren aldeko jarera hori *Zeruko Argia*-n kaleratutako artikuluetan agertu zuen publikoki. Jarrera horrengatik, hain zuzen, mehatxu gogorak jaso zituen Martinek, alderdi barruan bereziki.

Garai hartarako EJko *Alderdi* agerkaria zuzentzen ari zen eta kontzientziak hala eskatzen ziolako Eusko Jaurlaritzarekin hasi zen lanean, Leizaola lehendakariaren nahiari jarraiki. EAJko kontseilari izan zen klandestinitatean.

Lan horretan zela atxilotu zuten. "Ya te dijimos que no te metieras en política" esanda mugaz bestaldera bidali zuten. Hiru urte egin zituen Donibane-Lohizunen. Han ere lanean aritu zen buru-belarri, bai politikagintzan eta baita literaturgintzan ere. Garai hartakoak dira, *Las brujas de Sorjin* eleberria, Martinek osatutako lehen historia lanak eta biografiak, eta gero *Hablando con los vascos* sailean bildu zituen.

Franco hil ondoren, 1976an itzuli zen Hondarribira. Harrezkero idazteari eutsi zion. EAJn belaunaldi berriak sartuak ziren, eta haien aldean politikan aritzeko senik ez. Ondo zekien berak zein zen ber bidea, eta hura ez zen politika.

Bere jardun politikoagatik, baina, prentsa ofizialean aritzeko aukerarik ez zuen. Hori zela eta, gogotsu heldu zion garai hartan sortzeko bidean zen egunkari berri baten proiektuari, *Deia*-ri. Egunkari horretako lehen urtean zuzendariorde izan zen eta euskarazko gaien arduradun. Berak aitortua da kargu hartan erreta aritu zela, euskaraz aritzeko askatasunik ez baitzioten ematen. Sutu egiten zen euskaraz inork irakurtzen ez zuela eta bere orriak garesti ateratzen zirela esaten ziotenean.

Deian aritu zen urte berean Euskaltzaindiaren *Euskararen Liburu Zuria* zuzendu zuen.

1983 urtean Eusko Jaurlaritzako Euskarazko Arazoetarako zuzendari nagusi izendatu zuen Karlos Garaikoetxea lehendakariak. Bi urte egin zituen hartan, harik eta EAJ banandu zen arte. 38 urtetan EAJko kide aktibo izanda, alderdia utzi eta EAra bildu zen. Orduan erabaki zuen politikari muzin egin eta kazetaritza, literaturgintza eta euskalgintzari lehen baino estuago lotzea.

Gogotsu aritu da harrezkero lan horietan, euskarazko egunkaria sortzeko proiektuan batez ere. Bere betiko ametsa 1989 urtean gauzatu zen EUSKALDUN EGUNKARIAn. Sorreratik da egunkari honen Administrazio Kontseiluko lehendakari, eta sorreratik idatzi du hamabostero, etenik gabe, bere iritzi artikulutxoak.

EGUNKARIAko hamabosteroko zutabea ez ezik, literatura idazten ere etenik gabe aritu da. Lan horren azken fruitua da *Erretiradako tren*a astelehenean Andoainen aurkeztuko duen ipuin liburua.